



NABO FOKU MUSIKALA

Donostiako Hiru Damatxo

Donostiako hiru damatxo
Errenderian dendari. (Bis)
Josten ere badakite, baina
ardoa edaten hobeki.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren goxua. (Bis)
Hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basua.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkua.

Donostiako neskatxatxoak
kalera nahi dutenean: (Bis)
Ama piperrikez dago eta
banoa salto batean.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
banoa salto batean.

Arrosatxoak bost hosto ditu,
krabelintxoak hamabi. (Bis)
Mari Josepa nahi duen horrek
eska bihotza amari.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska bihotza amari.

Three Ladies from Donostia

Three women from Donostia
Shopkeepers in Errenteria. (x2)
They also know how to sew, but
they know how to drink wine better.
And kriskitin, kraskitin (onomatopoeias),
rose carnation,
they know how to drink wine better.

The tasty cider from Donostia's
Gaztelupe gastronomic society. (x2)
When I was drinking there
the glass was broken by me.
And kriskitin, kraskitin (onomatopoeias),
Rose carnation,
a glass made of crystal.

Girls from Donostia
when they want to go to the street: (x2)
The mother is ticked off and
I'm going right away.
And kriskitin, kraskitin (onomatopoeias),
Rose carnation,
I'm going right away.

The rose has five leaves,
twelve carnations. (x2)
That is what Mari Josepa wants
ask your mother for a heart.
And kriskitin, kraskitin (onomatopoeias)
Rose carnation,
ask your mother for a heart.



NABO FOKU MUSIKALA

Donostiako hiru damatxo
hirurak gona gorriak. (Bis)
Sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira hordiak
eta kriskitin, kraskitin
arrosa krabelin,
irtetzen dira hordiak.

Donostiako hiru damatxo
ein omen dute apustu. (Bis)
Zeinek ardo gehiago edanda,
zein gutxiago mozkortu?
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago mozkortu?

Three women from Donostia
the three with red skirts. (x2)
They go into the bars
they leave the drunks.
And kriskitin kraskitin (onomatopoeias),
Rose carnation,
They leave the drunks.

Three women from Donostia
made a bet. (x2)
Who can drink more wine,
and who is the least drunk?
And kriskitin, kraskitin (onomatopoeias),
Rose carnation,
Who is the least drunk?